



Ak2-2005

2/2005 PLENOKO AGIRIA

2005ko Otsailaren 24an burututako Ohizko Udal Plenoaren agiria

Aizarnazabalen, bi mila eta bost garreneko Otsailaren hogeita lauean, gaueko bederatzia zirenean, bildu ziren Udaletxeko Areto Nagusian, ondoren idazten diren Jaun-Andreak, Udal Ohizko Plenoa egiteko asmoarekin, Begoña Gorrichategui Osa Idazkariaren laguntzarekin.

Bertaratu ziren Jaun-Andreak:

Alkatea: JOSE FRANCISCO LARRARTE AGIRRE.

Zinegotziak:

M^a CARMEN ARRIETA BARRENA.

JOSE ANGEL OÑEDERRA OLAIZOLA.

ASIER ALKORTA ARRUTI.

ASIER SEGUROLA MANTEROLA.

GAI ORDENA

1. Azkenengo burutu zen Udal Plenoaren Agiriaren zirriborroa onartzea hala badagokio.
2. Ordainketa eta kontuak.
3. Obra baimenak
4. Aizarnazabalgo Udaleko datu pertsonalen fitxeroak LOPD deritzon legera egokitzeko kolaborazioa IZFE, S.A.rekin.
5. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren baremo ekonomikoa 2005 urterako.
6. Erretola aldetik Etxubi baserrira bide publikoan lurak garbitzea eta bertederora eramatea.
7. Fotokopiadora eta faxaren zerbitzuak kobratzea.
8. Zubialde auzoko etxe bizitzetako hornikuntza.
9. Udaleko langile baten eskaera lanaldiaren murrizketari buruz.
10. Dirulaguntza maremotoak egindako kalteak konpontzen laguntzeko.
11. Euskaraz ikasteko ikastaroen antolakuntza.
12. Baserri bideak konpontzeko aurrekontuak.
13. Soldata igoerak.
14. Boxeoa antolatzeko dirulaguntza.

1.- AZKENENGO BURUTU ZEN UDAL PLENOAREN AGIRIAREN ZIRIBORROA ONARTZEA HALA BADAGOKIO.

Alkateak Udal Plenoa zabaldu ondoren 2005eko Urtarrilaren 27an burutu zen Udal Plenoko Agiriaren zirriborroa onartzeko oztoporik zegoen galdetu ondoren ahobatez onetsi zen.

2. ORDAINKETA ETA KONTUAK

IZENA	Fak. Zenb.	KONTZEPTOA	€UROAK
Astiaran, SL	90/04	Estolderia Industrialdean	1.144,11
Gipuzkoako Urak, SA	309	Mendixikiko ura	868,24
IZFE, SA	2005/3	Ksotu informatikoen kuota	1.934,02
Gipuzkoako Urak, SA	2	Uren kontrola	1.326,75
Agerre Instalakuntzak SL	20	Argiterian konponketak	2.286,01
Basakaitz herri ikastetxea	Igeria	Igeria ikastaroa 2005	351,17
UEMA	2005	Kuota	3.639,00

Ondorengo aurrekontuak onartzen dira:

Argia	Publizitatea	2006ko urtekaria. Faldoia	345,00
Berria	Publizitatea	Berria ESKURA gida liburua	360,00

3.- OBRA BAIMENAK

- **Espediente zenbakia: 3/2005.** Eskatzailea: GURBEGI, SL Obra: Elkarri atxikitutako 29 etxebizitza familia bakarrekoak eraikitzea AIU2 Arean. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: 102.642 € Udaleko Arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu.
- **Espediente zenbakia: 4/2005.** Eskatzailea: GURBEGI, SL. Obra: AIU2 Arearen Urbanizazioa. Udaleko Arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu.
- **Espediente zenbakia: 5/2005.** Eskatzailea: Julian Larrañaga eta Julian Lasa. Obra: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzea Amilibia inguruan. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: 14.560 € Udaleko Arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

4. AIZARNAZABALGO UDALEKO DATU PERTSONALEN FITXEROAK LOPD DERITZON LEGERA EGOKITZEKO KOLABORAZIOA IZFE, S.A.REKIN.

15/1999 (LOPD) Lege Organikoak, pertsonal izaera duten datuak babestu behar direla xedatzen du eta, erakunde publiko eta pribatuek izaera pertsonala duten datuak babesteko zenbait neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartu behar dituztela datu hauen siurtasuna eta behar ez den erabilerarako ez erabiltzeko bermatzeko.

Hori dela eta Aizarnazabalgo Udalak, Legeak eta 994/1999 Errege Dekretuak bete behar dituela eta, zera erabakitzen du;

1. IZFE S.A. Informatika zerbitzuen Foru Elkarteari LOPD Legeari egokitzeko egin behar diren tramiteak egiteko kolaborazioa eskatzea.
2. Alkatea den Jose F. Larrarte Agirre Jauna ahalmentzea kontratua sinatzeko.
3. 2.900 €uroko balorazio ekonomikoa onartzea.

5. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN BAREMO EKONOMIKOA 2005 URTERAKO.

Gaiordenarekin jarraituz, 2005 ekitaldirako Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren baremo ekonomikoa onetsi zen, ondoko hau delarik:

HILEROKO DIRUSARRERAK MODULO PERTSONALA		ONURADUNAREN EKARPENA ZERBITZU KONSTOAREN GAINERA 6,58 €
367,39	419,87	% 10
419,88	472,36	% 20
472,37	524,84	% 30
524,85	577,33	% 40
577,34	629,82	% 50
629,83	682,29	% 60
682,30	734,77	% 70
734,78	787,26	% 80
787,27	839,75	% 90
839,75	Gorago	% 100

6. ERRETOLA ALDETIK ETZUBI BASERRIRA BIDE PUBLIKOAN LURRAK GARBITZEA ETA BERTEDERORA ERAMATEA.

Aizarnazabalgo Udal Plenoak, 2004ko abenduaren 17an erabaki zuen besteak beste, Erretola aldetik Etzubi baserrira bide publikoa jabari publiko bezala udal ondarrera berreskuratua aitortzea eta Angel Luis Eizagirre Larrañaga Jaunari hamabost eguneko epea ematea egindako usurpazioa atzera itzuli, bidea garbitu eta bere onera itzuli dezala, ohartuz horrela egingo ez balu, Udalak subsidiarioki gauzatu ahal izando duela bere kontura.

Idatzia, notifikatua izan zen 2004ko abenduaren 30ean.

Kontutan izanik, Angel Luis Eizagirre Larrañaga Jaunak ez duela bidea garbitu eta bere onera itzuli, idatziz, ondorengo adieraztea erabaki zen ahobatez:

1. Hamabost eguneko epea berriz ematea, Erretola aldetik Etzubi baserria bide publikoan lurak garbitu eta bertederora eraman ditzan.
2. Epe horren barruan ez balu egingo, Udalak egingo luke lan hau subsidiarioki Angel Luis Eizagirre Larrañaga Jaunaren kontura, 690,20 €uro gatik.

7. FOTOKOPIADORA ETA FAXAREN ZERBITZUAK KOB RATZEA.

Gaiordenarekin jarraituz, “Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak” arautzen duen ordenantzatik ondorengo onartzea erabaki zen:

Zenbait Udal tresnen erabilerarengatik Udaletxean eta Udal liburutegian:

- Fotokopiak.
 - * Dina 4 0,05 €uro (Bost baino gehiago ateratzen badira)
- Impresorakoak.
 - * Dina 4 0,05 €uro (Bost baino gehiago ateratzen badira)
- Faxak bidaltzea gatik.
 - * Bakoitza 1 €

8. ZUBIALDE AUZOKO ETXE BIZITZEI UREN HORNIKUNTZA.

Zubialde auzoan, bost etxetara ura sartzeko eskaera luzatu zioten Udalari, eta obra hau egin ahal izateko, Urkomeri eskatu zitzaion dirulaguntza. Kontutan izanik Urkomek 2005 urterako 5.760,10 €uroko dirulaguntza eman duela, zera erabaki zen:

1. Obra egin baino lehen auzokoekin bilera bat egitea, herriko ura sartu baino lehen erabaki dezaten, herriko ura hartzen badute lehengo ur partikularra moztu egin beharko delako.
2. Lehengo ur partikularra dutenei esan beharko zaie, herriko ura sartzan badute, bestea moztu egin beharko dutela.
3. Hau erabaki ondoren, hiru kontratistek aurrekontuak eskatuko zaizkie.

9. UDALEKO LANGILE BATEN ESKAERA LANALDIAREN MURRIZKETARI BURUZ.

Gaiordenarekin jarraituz, Itziar Odriozola Garmendia andereak aurkeztutako idatzia irakurri zen, bertan eskatzen du jornada osoaren %33ko lanaldi murrizketa, 2005eko otsailaren 1etik 2006ko urtarrilaren 31ra bitartean.

Ahobatez, eskatutakoa onartzea erabaki zen.

10. DIRULAGUNTZA MAREMOTOAK EGINDAKO KALTEAK KONPONTZEN LAGUNTZEKO.

2004ko abenduraren 26ean Asiako hegomendebaldean izan zen maremotoak sortutako kalteak konpontzen laguntzeko, Udal Plenoak ahobatez, Aizarnazabalgo biztanle bakoitzeko €uro bateko laguntza ematea erabaki zuen eta Karitas erakundearen "Aizarnazabalgo herria" izenarekin irekitako kontu korrentean dirua sartzea. Aizarnazabalgo biztanle kopurua ofizialki onartutakoa 2004 urtean 582 izan zelarik, 582 €uroko dirulaguntza ematea.

11. EUSKARAZ IKASTEKO IKASTAROEN ANTOLAKUNTZA.

Euskaraz ikasteko ikastaroen antolakuntzaren inguruan, herrian zehar izena emateko ireki zen epean, sei pertsona apuntatu ziren euskaraz ikasteko.

Kontutan izanik, Plastinkak ere euskarazko ikastaroak antolatu dituela, ahobatez zera onetsi zen:

1. Euskarazko klaseak antolatzea, ahalbada herriko irakasle batetin.
2. Plastinkarekin hitz egitea eta posible bada ikastaroan elkarrekin antolatzea.
3. Euskaltegia dei egitea irakaslearen titulazioari buruz jakiteko.

12. BASERRI BIDEAK KONPONTZEKO AURREKONTUAK.

Ondoren baserri bide batzuren aurrekontuak ikusi ziren, besteak beste:

▪ Amilibia baserrira.	3.600 m ²	50.221,04 €
▪ Sarasola berri baserrira	3.795 m ²	46.179,08 €
▪ Sarasola zaharra baserrira	2.263 m ²	27.537,09 €
▪ Astalarre baserrira	1.550 m ²	25.693,42 €

Gai hau pendiente geratu zen, eskolako garraioarena argitu arte eta Amilibian egin behar duten etxea bukatu arte.

13. SOLDATA IGOERAK.

Larrarte Jaunak planteatu zuen, langile batek soldata igoera eskatu diola eta berak ere bere soldata igotzea nahi lukela., eztabaida labur baten ondoren, zera erabaki zen ahobatez: Gai hau mahai gainean lagatzea eta txosten bat egitea eta inguruko herrien egoeraren berri jakitea.

14. BOXEOA ANTOLATZEKO DIRULAGUNTZA.

Larrarte Jaunak planteatu zuen, boxeo belada bat antolatzen hasi direla Aizarnazabalen ospatzeko datorren maiatzaren 6an Mikel Txiki ñi inguruan, eta 3.000 €uroko dirulaguntza eskatzen diotela Aizarnazabalgo Udalari, eztabaida labur bat egin ondoren, zera erabaki zen ahobatez, “Gai hau mahai gainean lagatzea momentuz”.

Eta beste gairik ez zegoela ikusi ondoren, Udal Pleno hau gaueko hamar terdietan amitu zen eta Idazkaria naizenez ziurtatzen dut Alkatearen On Eritziarekin.

O.E.
ALKATEA,

IDAZKARIA,